



## Autogestioa ardatz eta aldarri, Gazte Egunean

**TOLOSALDEA** ▶ Bederatzi gaztetxe eta gazte asanbladek antolatuta, etzi izango da, Villabonan

**LELOA** ▶ 'Egiten dugunean sinisten dugulako, autogestioa!' lelopean, egun osoko festa prestatu dute ▶ 7

**ANOETA-TOLOSA** ▶

### 3. mailara igo da Anoeta areto futbol taldea

Tolargik ezin izan du lortu igoera ▶ 5

HITZA



**AITOR REGILLAGA** ▶ TXIRRINDULARIA

### «Familiakoak alboan izateak asko laguntzen nau»

Gipuzkoako Txapelketa irabazi du txirrindulari tolosarrak Errenterian ▶ 2

**ALBIZTUR** ▶

### Bihar ekingo diote Kultur Asteari

Ekainaren 11 arte iraungo du ▶ 4

**LEITZA** ▶

### Elosegiren 'Hartz arrea Pirinioetan' lana, kalean

Biologo eta basozainak bihar aurkeztuko du ▶ 7



Jon Gaubeka eta Arantxa Gurmendi aktoreak. HITZA

**VILLABONA** ▶

### Bi munduen artekoa, taula gainean

Gurean, 'Neska politik, artasoro alaiak' lana ▶ 6

**ceinpro**

**Diseinuan eta kreazioahalmenean oinarritutako heziketa**

■ **DISEINU ETA PRODUKZIO EDITORIALEAN GOI TEKNIKARIA**  
ARTE GRAFIKOTAKO FAMILIA PROFESIONALEAN  
GOI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA

IRAUPENA · 2 ikasturte / 2000 ordu  
SARRERA · UBI · LH II · IEE II · edo HSAOL BATXILERGOA gainditua

■ **ARTE GRAFIKOEN AURREINPRIMAKETAN TEKNIKARIA**  
ARTE GRAFIKOTAKO FAMILIA PROFESIONALEAN  
ERDI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA

IRAUPENA · 2 ikasturte / 2000 ordu  
SARRERA · 2. BBB · LH I · IEE I · edo DBH gainditua



Heriz Pasealekua, 95  
20008 Donostia  
Gipuzkoa  
Tel: 848 910 873  
Fax: 843 910 875  
[www.ceinpro.es](http://www.ceinpro.es)

## ELKARTASUNA ▶



## Inmakulada ikastetxea Paraguairekin

Tolosako Inmakulada Ikastetxeak Paraguairi Chaco herrixkan baratze eskola bat finantzatzeko asmoari ekin zion iragan urtarrean. Horretarako, Elkartasunaren Porra antolatatu zuten bertako ikasleek, zeinaren bitartez astero eta ikasturtearen zehar euro bana jarri behar izan duen ikasle eta irakasle bakoitzak. Ereinak bere fruitua eman du eta asmoa egi bihurtzea gertuago dago. Lehen urratsa eman zuten atzo, guztia bideratuko duen GBERi dirua entregatu baitzioten —argazkian—. N. L.

## ZINEMA ▶

## Zinema aukera gehiago, asteburu honetarako

## ERREDAKZIOA

Asteburu honetan ere izango da zer ikusia Kultur Etxean. Udalak zinema aukera zabaldu prestatu baitu, doan, bi egunetarako. Etzi, esaterako, *Mision a Marte* (17:00etan) eta *La Rosa purpura de El Cairo* (19:30ean) filmak izango dira ikusgai. Eta igandean, berriz, *El Golpe* (17:00etan) eta *Que ruina de funcion* (19:30ean) eskainiko dituzte.

## AITOR REGILLAGA ▶ TXIRRINDULARIA

# «Familiakoak alboan izateak asko laguntzen nau»

Gipuzkoako txapela bereganatu zuen, iragan igandean, Aitor Regillagak, Errenteriako lasterketa irabazi ostean



Aitor Regillaga tolosarrak —ezkerrean— garaipena eskuratu zuen, igandean, Gipuzkoako Txapelketan. HITZA

## NOELIA LATABURU

Pasa den igandean, Aitor Regillaga (Tolosa, 1981) Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuen, elite mailan, Errenterian korritutako lasterketa irabazi ostean. 98 kilometroko ibilbidea burutu zuten txirrindulariek; Telco taldeko Regillagak, beste 6 lasterkariekin batera —Aseginolaza, Aperribai, Odriozola, Garmendia, Lariz eta De Migel— hasieratik utzi zuen atzean tropela. Gaintxurizketa hiru bider igo zuten eta Regillaga beste txirrindulari batekin egin zuen ihes azken 30 kilometroetan; azkenean aldapan zegoen helmuga Regillagak igaro zuen lehen, Bidelaneko korrikalaria aurreratuz. Bertan bizitutakoaren eta bere ibilbidearen gainean hitz egin du Tolosakoak Hitzarekin.

### Nola bizitu zenuen lasterketa?

Ondo; hasieratik ihesi joan nintzen zarpiko talde batean, nire taldeko bat barne. Azken 30 kilometrotan, berriz, bi geratu ginen eta sprint-ean irabazi nuen Gipuzkoako Txapelketa.

### Uneren batean pentsatu al zenuen amore ematea?

Uztea ez nuen pentsatu, baina egia esan hasieran ez nindoa oso eroso. Aldapa handirik ez, baina gorabehera handiak zituen ibilbideak eta gogorra izan zen. Eguraldiak lagundu zuen; izan ere, ni beroarekin hobeto moldatzen naiz.

### Eta, noiz ikusi zenuen zure burua txapeldun?

Amaierara arte ez behintzat, nirekin ihesi zihoan txirrindularia ere ondo zebilen eta. Buakaeran seguru sentitu nintzen eta sprint-ean atzean utzi nuen.

nean ikusi nuen lasterketa irabaziko nuela.

### Zer sentitu zenuen helmuga iragotzerakoan?

Poza ikaragarria: denboraldiko lehen garaipena eskuratu nuen eta nire taldeko lehenengo izan ere. Gainera, familia guztia hor nuen ni animatzen.

### Jarraitzaileak izan zenituen, beraz.

Bai, familiarakoak alboan ikustea eta sentitzea asko eskertzen da, batez ere, aldapa gora.

### Saria norbaiti eskaini al diozu bereziki?

Bai, beraien.

### Zure lehen garaipena al da?

Denboraldikoa bai, baina izan ere beste proba bat irabazi nuen, Zamoran [Espainia].

### Eta hemendik aurrera, zein lasterketa dituzu?

Larunbatean [etzi] Urdigainen ariko gara eta asteartean Nafarroako bira hasiko dugu, datoren larunbata bitarte.

### Beste garaipen baten bila joango zara hara?

Beno, Nafarroako proba honetan oso txirrindulari onak lehiatzen dira eta oso zaila egongo da zerbait irabaztea. Puntan ibiltzen saiatuko naiz eta ihesaldiren batean sartzen banaiz, ba askoz hobeto. Ea etaparen bat irabaztea lortzen dudan.

### Txirrindularitza munduan luzerako izango al zara?

Printzipioz, aurtan utziko dut, eskaintzaren bat ez badut, behintzat. Urte asko izan dira afizionatuetan; fubola utzi eta kadeteetako bigarren urtean hasi nintzen txirrindularitza eta uzteko unea iritsi dela iruditzen zait. Oso kirol gogorra da, eta sakrifizio handia suposatzen du.

**Astitzko kobak S.M. enpresak**, Mendukiloko leze turistikoan lan egiteko lan poltsa osatu eta udararako (ekaina-uztaila-abuztua) langile bat kontratatzeke deialdia luzatzen du.

**Egitekoak:** kobako bisita gidatuak, tiket salmenta eta taberna hartatzea.

**Eskeintza:** trebakuntza eta 3 hilabeterako jornada osoko kontratua. Jarraitzeko aukera.

**Baloratuko da:** euskalduna, zonaldekoa, antzerako lanetan eskarmentua eta ingurumen heziketaren ezagutza.

**Ezinbestekoa:** B1 gida baimena eta autoa (kobara bertaratzeko)

**Epea:** C.V.-ak maiatzak 22 (astelehena) arte jasoko dira.

**Nora bidali:** Plazaolako Partzuergo Turistikoko egoitzan (Turismo bulegoan).

Plazaola 21, 31870 Lekunberri  
mendukilo@mendukilo.com

## TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Eztabaida.** «Herriko jaiak ate joka dira. Zer da antolatzen duten egitarauaren baitan gustukoena duzuna? Zer aldatuko zenuke? Zer sumatzen duzu faltan? Zergatik?». Sartu gure webgunean eta eman zure iritzia gai honi eta beste askori buruz.

**TOLOSA ▶ KIROLA**

# Hilaren 23an amaituko dira entrenatzaile eta kirolarien formakuntza ikastaroak

Iñaki Arratibel medikuak ere parte hartu du jardunaldietan, 'Egoera fisiko orokorra. Metabolismo energetikoa eta errendimendua' hitzaldiarekin

**ESTI EZEIZA**

Kirolaren benetako zentzua indartzeko asmoz, eta onegite zabalgaraztearen, astez aste, hainbat hitzaldi izan dira entzungai Usabalgo konferentzia gelan. Hauek, kirolari eta entrenatzaileen formakuntzarako 3. ikastaroen barne antolatatu ditu Orekin Fundazioak. Maiatzaren 2an hasi ziren ikastaroak, eta dagoeneko hiru jardunaldi gauzatu dira; bertan, besteak beste, ariketa fisikoa eta osasuna, lesioen patologia, egoera fisiko orokorra, elikadura, hidratazioa eta kirol errendimendua bezalako gaiak jorratu dira. Hurrengo saioarekin agurra emango diete aurtengo jardunaldiei. Hau datorren asteartean izango da, arratsaldeko zortziretatik aurrera.

Tolosako Udalaren, Foru Aldundiaren eta Asuncion Klinikaren laguntzarekin, gazteen kirol heziketa integralaren gaia jorratu dute batik bat. «Osasuna, errendimendua, eta portarea etikoarekin» loturiko alde garrantzitsuenak garatuz eta beraiei buruz eztabaidatuz.

## AZKEN JARDUNALDIA ▶

Maiatzaren 2an hasi ziren ikastaroak, eta 23an amaituko dira. Denera lau saioak osatu dute ikastaroa.

### MAIATZAK 23

**20:00.** Manu Gonzalezek zuzendua, ikastaroaren ideia garrantzitsuenen azterketa.  
**20:10.** Mahai ingurua: *Goi mailako kirolari izatea.* Parte-hartzaileak izango dira Andoni Imaz, Iñaki Perurena, Abraham Olano, Iñaki Murua eta Asier edo Aimar Olaizola.  
**21:00.** Enrique Ayerbek ziurtagiriak eta etika kodigoak banatuko ditu.  
**21:15.** Ikastaroaren ixiera. Bertan izango dira Iñaki Ugarteburu, Jokin Bildarratz, Ramon Arbilla eta Enrique Ayerbe.  
**21:15.** Amaiera emateko luntxa.



HITZA

**IÑAKI ARRATIBEL ▶ MEDIKUA**

## «Kiroltasunean bizitzeko modu bat erakutsi beharra daukagu»

Orekin Fundazioak antolatutako jardunaldi hauen barruan, hilaren 9an Iñaki Arratibel medikuak hitzaldi bat eskaini zuen, *Egoera fisiko orokorra. Metabolismo energetikoa eta errendimendua* izenburupean. Hitzarekin aritu da solasean. **Zer da hitzaldian azaldu zenuena?**

Orokorrean, forma fisikoa bakoitzaren helburuetan datzala azaldu nuen. Ez baita gauza bera pertsona arrunt batek eguneroko bizitzan gauzatzen duen esfortzu fisikoa, edo osasuna berreskuratzeko gaixo batek egin behar duen lana, ez eta goi mailako kirolari batek egiten duena ere. Bestetik, metabolismoaren oinarriak agertu nituen, nola lortzen dugun energia... Azkenik, errendimendua: hau ez da bakarrik bakoitzaren entrenamendu maila, beste faktoreak ere badaude, taktikoak, nahiz psikologikoak. Honen barruan, urduritasuna, presioa eta abar. **Hitzaldi hauen helburuetako bat kirolaren benetako zentzua indartzea da. Zein da zuretzat benetako zentzu hori?** Lehenengo gauza, gazteekin

zentzu hori berreskuratzeko: osasuntsu egon beharra dagoela, eta kompetibitatea bakoitzaren lanarekiko egokia izan behar duela. Eliteko kirola eta gure inguruko pertsona arrunt batek egiten duena bereizi behar da. **Ez al dugu, bada, ondo bereizten?**

Neurri batean hori dirudi. Sustrai berak baitituzte, baina oinarriak ezberdinak dira goi mailako kirolari edo kirolari arruntetan. Kompetibitateak ezberdina izan behar du, eguneroko jardueretan hau murrizten jakin behar dugu. **Mediku zaren aldetik, zer egin beharko luke medikuntzaren alorrak?**

Kiroltasunean bizitzeko modu bat erakutsi beharra daukagu. Batzuek kompetizioa bakarrik ikusten dute, eta hori horrela ez dela erakutsi beharra daukagu. **Gazteek gero eta kirol gutxiago egiten dutela esaten da, zergatik?**

Oso erraz esaten dugu hau, baina kirola gehiago egiten da, oihitura badago, baina mugikortasun gutxiago dago. Zer-

gatik? Ba gure garaian, lasai, kalean toki ugari genuen bizikletarekin eta korrika ibiltzeko. Baina orain eraikitzen ari garen hirietan, ezin dago mugikortasunerako erraztasun hori. Horregatik, kirolak ematen duen mugimendu hori lor-tu beharra dago.

**Zer egin daiteke gazteak kirola egitera ohitu daitezen?**

Zailtasuna hor dago, aholkuak ematean, 17-20 urtetik gorako- ok ulertzen baitugu kirola gure osasunerako eta eguneroko bizitzarako beharrezkoa dela, eta ariketa fisikoak egiteko oihitura hartu behar dugula. Baina gazteentzat aholku hauek ez dute balio. Ahal den neurrian, mugimenduan oinarritutako bizitza bat ematen, janaria eta elikadura zaintzen, eta sedentari-moa baztertzeko erakutsi behar diegu.

**Zer iritzi duzu jardunaldiez?** Horrelako hitzaldiak ondo daude, baina arazoa da jende gutxiagengana heltzen direla. **Nik beste modu batera, ikastetxe eta eskoletan zabalduko nituzke jardunaldiak. Jokoen bidez-eta modu dibertigarrian haurrei erakutsi ahal izateko.**

**TOLOSA ▶**

## 'A las cinco de la tarde' filma, zine-klubean

Tolosako maiatzeko kultur ekitaldi eta jardueren barruan, zine-klubak *A las cinco de la tarde* filma eskainiko du gaur, 21:30ean, Kultur Etxean. Samira Makhamal-baf-en lanak 2003ko Canneseko jaialdiko epaimahaia- ren saria, eta Canneseko epaimahai ekumenikoaren saria irabazi zituen.

**BERASTEGI ▶**

## Santxotena eta Almandozera ibiladia

Gaztainondo jubilatutako elkar-teak antolatuta, Santxotena ra eta Almandozera ibilaldia egingo dute herritarrek hila- ren 24an. 08:30etan abiatu- ko dira herri enparantzatik. Santxotena museoa, agoteen baserria eta Almandoz eza- gutzeko aukera izango da. Izen-ematea, elkartean.

**TELEFONOAK ▶**

### Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
  - ▶ Anbulatorioa, larriald:461111
  - ▶ San Esteban: 006800
  - ▶ Gernikako arbola: 006900
  - ▶ Amarozko dispen.: 672637
  - ▶ Asuncion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
  - ▶ DYA: 672536
  - ▶ Gurutze Gorria: 674888
  - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
  - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930
- ▶ **Garraioak.**
  - ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- ▶ **Besterik.**
  - ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurramendi egotiza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

## ALBIZTUR ▶ KULTURA

# Bihartik ekingo diote Kultur Asteari

Udalak eta Arkaitz elkarteak hainbat ekitaldi antolatu dituzte; ekainaren 11 arte iraungo dute ekitaldiek

## NEREA URBIZU

Albizturko Kultur Asteari hasiera aste honetan emango diote, bihar, zehazki. Hainbat ekitaldi prestatu dituzte. Antolatzaileak, beste behin, Arkaitz elkarte eta Albizturko Udala izan dira.

Ez dute aste bakar batean dena egingo, asteburuak aprobetxatuko baitituzte ekintza guztiak egiteko, eta ahalik eta

jende gehiena bildu ahal izateko. Asteburu honetan hasi eta ekainaren 11 arte luzatuko da Albizturko Kultur Astea; ia hilabete, beraz.

Oso anitzak dia aurten ere prestatu dituzten ekintzak: hitzaldiak, antzerkiak, lehengo urtean bezala bertako umeek prestatutako antzerkia, kirola, bertso ikastaroa... Jende mota ezberdinarentzat prestatutako ekintzak eskaintzea zen, hain

zuzen ere, antolatzaileen asmoa.

Aurten, dirudienez, ez dago musika emanaldirik, baina ordainetan, lehengo urtean egin ez zuten ikastaroa antolatu dute: bertsoena, alegia. Aitor Mendiluze eta Amaia Agirre bertsoariak hiru egun ezberdinetan bertsoen gaineko erakustaldia eta irakaskuntza egingo dute, nahi duenarentzat.

## KULTUR ASTEA ▶ EGITARAUA

Aurten Albizturren prestatu dituzten ekintza guztiak hauek dira, hurrenez hurren:

## BIHAR

**20:00.** Kultur Etxean, *Nerabezaroan sortzen diren aldaketak* hitzaldi interesgarria eskainiko du Ibon Arizeta adituak.

## LARUNBATA

**20:00.** Helduentzako antzerkia, Kultur Etxean. Kutzak babesten duen

antzerkia da, eta *Nora doa ero hori* izena du.

## HILAREN 26A

**19:00.** Eskolako umeen antzerkia, eskolan.  
**20:00.** Bertso ikastaroa eskainiko dute Aitor Mendiluze eta Amaia Agirre bertsoariak. Ekainaren 2an eta 9an ere izango dira eskolak, ordu berean.

## EKAINAREN 4A

**07:00.** Herriko mugak ikusteko ibilaldia, herriko plazatik

hasita. Ibilaldia Txikortako gainetik Erriora. Ondoren, herrikoentzat hamaiketako.

## EKAINAREN 7A

**16:30.** Joseba Ramirezek ipuina kontatuko die 3-6 bitarteko umei, liburutegian.  
**17:00.** 6-12 urte bitartekoentzat ipuina.

## EKAINAREN 11

**12:00.** Pilota partidak: Telleria-Tellebea Narrarte-Galartzaren aurka, eta Belloso-Zapirain Renobales-Oteizaren kontra.

## VILLABONA ▶ ERLIJIJOA

## Jesusen Bihotzakoen Haur Danborrada, bihar

Ikasturte amaieran katekesiak egiten duen jaia bueltan da, herrian zehar bira egiteko



lazio Haur Danborradan ikusle asko izan ziren. HITZA

## ERREDAZIOA

Ikasturte amaieran Villabona-ko Jesusen Bihotza parrokiako katekesiak antolatzen duen Haur Danborrada bihar izango da. Satorra, Larrea, Arroa, Errota, Oriamendi, Kale Berria, Plaza, Kale Berria, Txermin, Antzin eta Txistularien enparantza agian, Kale Berria eta berriro Satorrako ibilaldia egingo dute, 19:30ean abiatuta.

Ohar batzuk ere luzatu dituzte Jesusen Bihotza parrokiatik: lehenik, aurtengo ibilaldian izan daitezkeen aldaketak Kale Nagusian ari diren obregatik izango direla; horregatik, ez dago oraindik zehazturik bide osoa, bi leku baitaude zalantzan.

Bigarrenik, badirudi parte hartzen duten neska-mutikoentzat merienda izango dela, bai danborradan daudenez, eta baita mozorrotuko direnentzat ere.

Beraz, gonbita luzatu egiten dute parrokiaren aldetik, biharko arratsaldean danborradan parte hartzeko eta denon artean egun desberdina eta berezia igarotzeko.

## DANBORRADA ▶

Honela antolatu dute biharko eguna Jesusen Bihotza parrokiakoek.

## Eguna. Bihar.

**Ordua.** 19:30ean.

## Ibilaldiaren irteera.

Satorratik.

**Ibilaldia.** Satorra, Larrea, Arroa, Errota, Oriamendi, Kale Berria, Plaza, Kale Berria, Txermin, Antzin, Txistularien enparantza (azken bi hauek zehazteko), Kale Berria eta berriro Satorra.

## Parte-hartzaileak.

Danborra jotzen 4., 5. eta 6. mailako neska-mutilak ariko dira. Mozorrotuta nahi duten haur guztiak joan daitezke.

**BERTSOARIEK:** Andoni Egileta, Udal Buruaga, Maitalen Lopezkin, Igo Elorri, Aneke Izquierdo eta Txistul Galarza.

**Bertso Saioa**

**hitza**

**LAGUNTZAILEAK:** TURKO JAIKURTZA, GOBIERNO VASCO, INGURUMENA, CAJA LABORAL EUSKADIKO HITZA.

**LAGUNTZAILEAK:** TURKO JAIKURTZA, GOBIERNO VASCO, INGURUMENA, CAJA LABORAL EUSKADIKO HITZA.

**berria** rekin

**"50 IBILALDI ERRAZ, HAURREKIN EGITEKO MODUKOAK" LIBURUA**

**50 ibilaldi erraz haurrekin egiteko modukoak**

**+ KUKUXUMUSUK diseinatutako kantinplora bat OPARI!**

Laguntzaileak: TURKO JAIKURTZA, GOBIERNO VASCO, INGURUMENA, CAJA LABORAL EUSKADIKO HITZA.

Larunbat honetan **maiatzak 20**, kupoientzako **kartilla BERRI**arekin

Aukera ezazu, bizi euskaraz **berria**



ARETO FUTBOLA ▶

# Anoeta igo da, eta Tolargik ezin izan du

Asteburuan lortutako emaitzekin eskualdeko talde bat 3. mailara igo da



Anoetako futbol taldea 3. mailara igo egin da, asteburuan partida bat irabazi ostean. HITZA

## ERREDAKZIOA

Pasa den larunbata eta igandean areto futboleko play-off-ak jokatu zituen Azpeitian Anoetako areto futbol taldeak. Urtean zehar jokatu duten ligaxkan lehen postuan amaitu arren, larunbatean erabakitzen zen zein bi talde igotzen ziren 3. B mailatik 3. mailara.

Larunbatean Cafe Bar taldearen aurka jokatu zuten, eta 3-3 amaitu ondoren penaltietan irabazi zuten eta mailaz igotzea lortu zuten. Partida borrokatua izan zen. Lehen zatia 0-0 amaitu zen, bigarren zatian azken 2 minutuetan 3-3 bukatuta. Gero penaltietan 4-3 irabazi zuten.

Anoetatik jende asko joan zen animatzera, denera 70 bat: giro aparta jarri zuten. «Benetan eskertzekoa» izan zen.


Behin mailaz igotzea ziurtatuta, igandean finala jokatu zuten, Azpeitiko Jostaldi taldearen aurka. Partida hau ikustera ere jende asko joan zen. 3-2 galdu zuten, baina irabazi izan balute bezala ospatu zuten. Ondoren, Anoetako Kuku elkartearen bazkaria prestatu zieten Anoetako Gazte Asanbladak areto futbol taldeko kideei, eta «ederki ospatu genuen mailaz igotzea».

Jokalariak hauek dira: Juanma Ortiz, Eneko Perez, Agustin De Arriba, Aitzol Esnaola, Aitor Munduate, Joseba Peñalver, Adur Leunda, Aitzol Zubeldia, Iñaki Garzia, Beñat Luluaga eta Gorka Goikoetxea.


## Tolargi ez da igo

Tolosako futbol taldeak larunbatean penaltietan galdu egin bazuen ere, igandean 3. postua lortu zuen, «nahiko erraz» 5-3 irabazi ostean, Cafe Bar Tribuna Norte Donostialdeko taldearen aurka.

Julen Mendizabal, Imanol Gil, Iñaki Barriola, Aitor Garzia, Joseba Ilunbe, Erik Agilar, Mikel Lizartza, Jon Artola, Beñat Telleria, Iñigo Beloso, Sergio Sorrosabal eta Jon Gonzalez dira Tolargiko jokalaria. Hurrengo urtean saiatuko dira berriz ere, aurten ia lortu egin baitute mailaz igotzea.



## Hipoteka egokienaren bila bazabiltza



### AURKITU DUZU

**Kutxaren Etxebizitza Zerbitzuan**, merkatuko hipoteka guztiak baititugu; gerta litezkeen interes-gorakadetatik babesten zaituena; bere balioaren % 100 finantzatzen dizuna; gehien komeni zaizun epea ematen dizuna; kuota zure egoera ekonomikoetara egokitzeko aukera ematen dizuna...

**Guzti-guztiak dituzu eskura. Ez da bakar bat ere falta.**

Bestalde, **Kudeatzaile Pertsonal** batek, zure neurriko finantzaketa diseinatzeaz gainera, erosketa-prozesu osoan lagunduko ditu. Hasi eta buka.



**ETXEBIZITZA-ZERBITZUA**  
Etengabeko laguntza. Hasi eta buka.

## IRURA ▶ KULTURA



## Peter Roberts-en 'Mimarte' eta Gazte-gunekoen antzezlanak, Kultur Astean

I. Garcia ▶ Irura bere Kultur Astean guztiz murgilduta dago. Atzo, Peter Roberts mimoak *Mimarte* obra eskaini zuen —ezkerreko argazkian—. Ondoren, Gazte-guneko kideek *Gure koadrilan* antzezlanak oparitu zien jendeari —erdian—. Gogoratu ere, eskulanen tailerrekoen lanak ikusgai daudela Apaiz-Etxeko Ikastolako

gela batean —eskuinean—. Bestalde, gaur da azken eguna biharko afari herrikoiarako izena emateko. 15 euro ordaindu behar dira eta Zaharren Biltokiko tabernan bertan, udaletxean eta liburutegian eman daitezke izena. Egitarauari dagokionez, gaurkoan jubilatua izango dira protagonista. 16:15ean ibilaldi neurtua

egingo dute plazatik aterata eta herriko kaleetan zehar. Ondoren, 17:30ean, hitzaldia egingo dute Zaharren Biltokian, *Jubilatu ondoren laguntzeko lanean* gaiaren inguruan, Nagusilan elkarteko kideen ahotik. Ondoren, herenegungo jokoari sari banatzea eta lunch-a egingo dute. I. GARCIA

## VILLABONA ▶ ANTZERKIA

Bi munduren artekoa  
'Neskak politak,  
artasoro alaiak' obran

Agerre Teatroak eskainiko du antzezlanak Gurea aretoan, bihar; Arantxa Gurmendi eta Jon Gaubeka dira antzezleak

## ERREDAKZIOA

Villabonako Udalak beste antzezlan bat antolatuko du Gurea antzokian. Agerre Teatroak *Neskak politak, artasoro alaiak* eskainiko du, bihar, 22:30etik aurrera. Maite Agirre da antzezlanaren egilea eta zuzendaria. Arantxa Gurmendi eta Jon Gaubeka dira obrako antzezleak.

Arantxa Gurmendi lxi barazki saltzailea da, eta Jon Gaubeka Norden musika saltzaile gazte afrikarra. Mundu biren arteko talka islatzen dute, bai kultura ezberdinetatik datozelako, baina baita adinagatik ere. Istoriari, abestiari, ametsari, orotzaperi, dantzari eta esateren bitartez bata bestearen mundua ezagutuko du. Bi fruitu motek bat egiten dute antzez-



Arantxa Gurmendi eta Jon Gaubeka, obraren eszena batean. HITZA

lanean: batetik, fruitu heldua, alai eta sentsuala; bestetik fruitu gaztea, freskagarria eta zapore garrarduna. Pertsonaia biak euren arteko dialogo la-

burrengatik ezagutzen saiatu behar du ikus-entzulegokoa. Bizitza horrelakoa delako, enkontratu laburrez osatua, eta gehienetan topo egite haizetarik

## ERRITMOA

Tarteka-marteka moztu eta berreskuratzen da bi protagonisten arteko harremana, eten sentsazioa sortuz

gehiago atera zitezkeen sentsazioa uzten digulako.

Tarteka-marteka moztu eta tarteka-marteka berreskuratzen den harreman horretatik saiatuko dira pertsonaia biak eta ikusentzuleek zuku ateratzen. Eten sentsazio horri eusteko eten ugari jositako dramaturgia atondu du Maite Agirrek, erritmo eszenikoa sortzeko eta elementuen arteko kontrasteak areagotzeko. Bestalde, soiltasunaren aldeko apustua egiten du, agertokian kaxa-dorreak eta aktoreak besterik ez daudelako.

Halaber, musika uztartzen dute; txinpartaz eta musikaz beteriko enkontrua izango da. Protagonistek etengabe aipatu egiten diote haien musika unibertsuari, haien berezko kantuei eta haien baladei. Izan ere, musikak protagonismo handia du Carlos Ngemaren Free.netik rock-funky musika taldea zuzenean aritzen baita agertokian. Carlos Ngema bera da koreografiaren egilea.

## ALEGIA-ANOETA ▶

Tutorearen bisita  
izango dute  
KZguneetan

Anoetako eta Alegiako KZguneetan tutorearen bisita izango dute. Ohi bezala, mintegia eskainiko du eta kasu honetan bi herrietan berdina emango du: *Enplegu bat lortu*, hain zuzen. Bi orduko izango da. Tutorea gaur Anoetan izango da 16:00etatik 20:00etara. Tarte horretan, mintegia 17:00etatik 19:00etara emango du. Bihar, berriro, Alegian izango da, 16:00etatik 19:00etara eta mintegia emango du 17:00etatik 19:00etara.

## KIROLA ▶

Ernio-bea eta  
Orixe Gipuzkoako  
txapelaren bila

Eskualdeko bi areto futbol taldek jokatu dute Gipuzkoako Txapelketako finala. Villabonako Ernio-bea taldeak eta Tolosako Orixe taldeak izango dira partida horren protagonistak. Hitzordua Asitigarrako kiroldegian izango da, etzi, 12:30ean. Infantil mailako neskek izango dira lehiari izango direnak.

## iragarki laburrak ▶

## LANPOSTUAK

**Gidariak.** Udaletan eta Eusko Jaurilaritzan laster lanpostuak B1, BTP eta C1. 943 31 37 82.

**Garbitzaileak.** Lanpostu libreak:

Eusko Jaurilaritza, ikastetxeak, ospitaleak. Informazioa 943 31 37 82.

**Mantenimendu Ofiziala.** Ospital, egoitza eta udaltxerako. Informazioa doan. 943 31 37 82.

**Gipuzkoako Foru Aldundiak** behar ditu: sukaldari laguntzaileak, obra zaintzaileak, gidariak, zaintzaileak, basozainak, laborategi teknikariak,

garbitzaileak. 943 31 37 82.

**Osakidetza.** Lanpostu libreak. Teknikariak, alborategi laguntzaileak, erizain laguntzaileak, zeladoreak. Informazioa doan. 943 31 37 82.

**Langileak.** Igeltseroak, elektrizistak, iturginak, lorezainak, palistak,

gidariak. Udaletxeetarako lanpostu libreak. Informazioa doan. 943 31 37 82.

**Administrari laguntzaileak.** Beasain, Bergara, Soraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro eta Anoetako udalek administrari laguntzaile

lanpostuak bete behar dituzte.

Informazioa doan. 943 31 37 82.

**Aireportuak.** Lanpostuak betetzeko: bezeroari arreta, aireko kontrolatzaileak, suhiltzaileak, mantentze-lanak. Informazioa doan. 943 31 37 82.

TOLOSALDEA ▶ GAZTERIA

# Autogestioa gako eta aldarri, Tolosaldeko Gazte Egunean etzi

Eskualdeko bederatziz gaztetxek egitarau zabala prestatu dute etziraiko; ekitaldietarako bonoak salgai jarrita dituzte

JAIONE ASTIBIA

Egiten dugunean sinisten dugulako, autogestioa! Horixe dute lelo, etzi, hilak 20. Villabonan eginen duten Tolosaldeko Gazte Egunerako: «Autogestioaren funtzionamendu printzipio hori izanen dute ardatz eguneko saioek», azaldu diote Hitzari antolakuntzatik.

Azpieskualdeko bederatziz herriariko beste hainbeste gaztetxek edota gazte asanbladek antolatu dute egun beteko eta askotariko ekitaldiz hornitutako egitaraua; goizean eginen duten mendi martxatik hasi eta gaueko kontzerturaino. Villabonakoak eginen duelarik anfitrioi-tza edizio honetan, Amez-



laz Alegian egin zen eta jendetsu. Irudian bazkariko une bat. HITZA

ketako, Anoetako, Ibarrako, Alegiko, Zizurkilgo, Lizartzako eta Bonberenea eta Sanblaspi-ko gaztetxeak aritu dira elkar-lanean.

Eguna mendi martxarekin

hasiko dute; Zizurkil eta Anoeta artean dagoen Basagain inguruan, «AHTK izanen lukeen ibilbidea bertatik ikusteko» baliatuz. Gai hau berriro aztertzeo aukera izanen dute, on-

EGITARAUA ▶

- 09:30. Mendi martxa.
- 12:30. Kafe tertulia.
- 14:30. Gazte bazkaria.
- 16:30. Gazte jokoak.
- 19:00. Kalejira poteoa.
- 21:00. Afaritxoa.
- 22:00. Kontzertua, Izate eta Kudai taldeekin.

doren eguerdi aldera egitekoak duten kafe tertulian ere, «proiektu horren aurka indar-metaketa bat egin dezakegun edo ikusiko dugu», zioten. Hori jada eguneko eginkizunetarako gune izanen den Villabonako Gaztetxean bertan dute egitekoak.

Hor, mahai-inguru horretan, bestalde, eguneko aldarri izanen duten autogestioa izanen dute mintzagai nagusi, jakitera eman dutenez. Bertan, «ezta-baida gai horren inguruan zentralizatu dugu. Horrela, funtzionamendu eredu hori bakoitzak nola ulertzen dugun azalduko dugu eta gero, gaztetxe bakoitzean nola lantzen dugun», zehaztu dute.

Bazkaldu, eguraldi onarekin gaztetxe atarian bertan, eta arratsaldeko festa giroarako prest jarriko dira, antolatzaile-

en esanetan «gutziz irekia» izango den egun honetara gerturatuko diren guztiak. Hala, gazte jokoetan, kalejira-poteoan, afaritxoan, nahiz kontzertuan parte hartzeo aukera eskura izanen dute.

Izate eta Kudai taldeek eskaintzekoak duten kontzertuaren harira, dena den, 22:00etarako iragarrita bazegoen ere, antolakuntzatik jakinarazi dutenez, «agian hasierako ordu-togia aldatu beharrean» izanen omen dira; «azken bi asteetan Ertzaintza azaldu da gaztetxera soinu ateratzen ari omen girela aitzakia jarrita, egia ez zenean. Hau ez da normala; orain arte ez da arazorik izan», azalduz. Ondorioz, atzo arratsaldean elkartzekoak ziren bederatziz taldeetako ordezkariak horri irtenbidea bilatzeko helburuz.

Edozein moduz, otordueta-rako eta kontzerturako bono-sarrerak salgai jarrita daude herri bakoitzeko ohiko tokietan. Egun osoko bonoak, bazkaria, afaria eta kontzerturako baliogarrak, 15 eurotan daude salgai; afaria eta kontzerturako direnak, 7 eurotan. Kontzerturako soilik diren sarrerak, momentuan eskuratu ahal izanen omen dira.

LEITZA ▶ KULTURA

## Elosegik hartz arrearen inguruko bere bigarren liburua aurkeztuko du bihar

'Hartz arrea Pirinioetan' izenburuarekin, Elkar argitaletxeak atera du

J. ASTIBIA

Migel Mari Elosegi leitzarrak hartz arrea gai hartuta egin duen bere bigarren liburua aurkeztuko du herriko liburutegian, bihar, 20:00etan. *Hartz arrea Pirinioetan* du izenburu bere liburu berri honek eta Elkar argitaletxeak plazaratu berri du.

Elosegi biologoa eta basozaina da eta bereziki hartzaren inguruko gaietan aditu da. Egun pil-pilean dagoen Pirinioetako hartzaren egoeraren eta gaiaren zuzeneko jarraitzailea izaki, liburudendetan eskuragarri izanen den liburu berri honek badu aurrekaririk. Izan ere, lehendik ere hartzari lotutako gaia landua baitu, saiake-

ra arloko Zelaia saria eskuratu zuen *Hartzak Pirinioetan XXI. mendean* (Pamiela, 2004) lanarekin.

Orduko lan hartan, Piriniotako hartzaren biziraupenaz berak ikertutakoaren ariora ateratako ondorioak, hainbat burutazio eta proposamen plazaratu zituen. Oraingo honetan, zein harizpiri jarraitu



Migel Mari Elosegi, egilea. J. A.

dion, aurkezpen ekitaldian argituko du. Jakiteko, han, zuzenean, egileari berari entzutea bezalakorik ez.

EUSKARA ▶

## Bai Euskarari Jarraipen Batzordearen bilera Leitzan

ERREDAKZIOA

Heldu den asteartean, hilaren 23an, Bai Euskarari Jarraipen Batzordeak bilera eginen du, udaletxeko batzorde gelan, 18:30ean.

Besteak beste, ziurtagiriaren banaketako ekitaldiaren antolaketan izanen dute aztergai, teknikari berria ezagutzera emateaz gain.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

**Gipuzkoan 50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK** Telf.: 943 65 56 95  
19:00ak arte hartzen dira tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

urteurrena ▶

**Martin Sarobe Lasarte**  
(IV. Urteurrena)



Zure irria zure ahoan,  
zure irria gure bihotzean.

lone, Oihana eta emazte lone

ZARAUZ, 2006ko maiatzaren 18a

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko maiatzaren 18a, osteguna ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK  
 udalak: Aduna, Alzabur, Alegia, Alkiza, Alza, Anestela, Anosti, Anzo, Aozoa, Bolaman, Bolantza, Berrog, Berroki, Ekharri, Gortzi, Itana, Itzategi, Itura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oreta, Tolosa, Villabona, Zuzaki

Gipuzkoako Foru Aldundia  
 Eusko Jauriaritza, Kultura Saila  
**943 30 43 46**

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Irura.** Kultur Astea. 16:15ean, jubilatuen ibilaldi neurtua, plazatik; 17:30ean, hitzaldia Zaharren Biltokian, *Jubilatu ondoren laguntzeko lanean* izenburupean.  
**Leaburu.** Jaiak antolatzeko bilera. 20:00etan, elkarteetan.

**ERAKUSKETAK**

**Gaztelu.** Edorta Muruaren antzinako euskal jantziei buruzko erakusketa. Hilaren bukaera arte ikusgai, Ostatuan.  
**Tolosa.** Iñaki Olazabalen eskulturak. Hilaren 27ra arte, Aranburu Jauregian.  
**Tolosa.** Mari Carmen Ortegaren pintura lanak, Lanbroa tabernan.  
**Tolosa.** Jesus Lopez Zulueta koadroak. Hilaren amaiera arte, Saikin tabernan.

**HITZALDIAK**

**Tolosa.** *Ezkerra gaur.* Joxe Iriarte *Bikila*-ren eskutik. 19:00etan, Sanblasipiko gazte lokalean (Igarondo igerilekuaren alboan). Maiatza Gorriaren egitarauaren baitan.  
**Villabona.** *Digestio zoriontsuak edo digestio pisuak.* 17:00etan, Biltoki jubilatuta elkarteetan.

**ZINE-KLUBA**

**Tolosa.** Samira Makhmalbaf zuzendariaren *A las cinco de la tarde* filma. 21:30ean, Kultur Etxean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
 Leitza, Gimeno, A. Elbarren, 52, 112.  
 Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7, 943 67 06 48.

**IRRATIA**

**Txolarre irrátia (107.5, 101.2 FM)**  
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahatsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepasoa, elkarrizketak, albisteak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...  
 21:00-22:00. *Gora Euscadi Txistulari*, Matraiako Irratiaren saioa, Arroza Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.  
 21:00-23:00. *Gau bero* musika saioa.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



**'Artea Oinez 06' ikusgai Atxulondo kultur etxean**

**ZIZURKIL ▶** Erakusketa berri bat hartuko du hemendik aurrera Zizurkilgo Atxulondo kultur etxak: *Artea Oinez 06*, Nafarroa Oinez-en antolatzen duen artelanen erakusketa. Atzo bertan inauguratu zuten, Maiatza Saltsan-en ekitaldien harira, eta hilaren 31 bitarte izango da ikusgai. 27 lanek osatzen dute erakusketa: obra gehienak margoak dira, baina hainbat eskultura ere jarri dituzte; besteak beste, Patxi Otegi herritararen lana. Eskualdeko beste hainbat artistek ere parte hartu

dute ekimenean. Hauexek dira egile guztiak: Xabier Agirre, Patxi Aldunate, Iñigo Altola Agirre, Angel Arbe, Lourdes Arretxea, Nestor Basterretxea, Baroja Collet, Iruña Comenzana, Iñaki Epelde, Juan Luis Goenaga, Joaquin Ilundain, Maddi Iratzoki, Jesus Mari Lazkano, Jose Luis Longoran, Jose Luis Mayor, Juan Carlos Olaetxea, Javier Sagarzazu, Tomás Sobrino, Javier Villareal, Josefa Burusko, Jose Mari Olanga, Patxi Otegi, Dora Salazar, Alberto Torres Ayerdi eta Jose Zugasti. HITZA

**GALTZAUNDI ▶**



**Aldizkaria.** Galtzaundi.  
**Zenbakia.** 235.a (2006ko maiatzaren 12a).  
**Orrialdeak.** 24.  
**Tirada.** 5.000 ale.  
**Gai nagusia.** *Hodeiertz, Indian euskal doinuak zabaltzen.*  
**Beste gaiak.** Anoetako Gaztetxeak zazpi urte bete ditu, Taldekako Serge Lehiaketa Tolosan, errenta aitortpena euskaraz, *Euskal Herria sozialista* aldizkari marxistaren lehen alea, Anoetako futbolariak, Eriepoeko martxa...  
**Argitaratzailea.** Galtzaundi Euskara Taldea.  
 ▶ Nafarroa etorbidea, 6-behea.  
 ▶ 943 65 50 04  
 ▶ [galtzaundi@galtzaundi.com](mailto:galtzaundi@galtzaundi.com)  
 ▶ [www.galtzaundi.com](http://www.galtzaundi.com)

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
 Goretti Oreja (Tolosa).  
 Gaur 4 urte. 4 muxu handi etbekoen partetik.

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

**hitza**  
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

**OSTATY JATETXEA** ITZIAR ETA AMAIA

- Eguneko Menua
- Plater Konbinatuak
- Asteburuko menuak 21-28 €

Erreserba egiteko deitu 11:00etatik 16:00etara  
 Alkizako plaza • ALKIZA • Tel.: 943 69 18 36

**MAIATZAK 21 Igandea**  
 Goizeko 11:00etan antzara diravolta

**HVI herri lasterketa 10 km**

**berria**

*Lehen emakide saria*  
 Martxoaren 17tik 18ra

*Lehen emakide saria*  
 Martxoaren 17tik 18ra